

BERANDU ZATOK

1. Arazoak argitu nahian...

Etxean nengoen festarako soineko egokia aukeratzen. Nire mutil laguna txundituta utzi nahi nuen. Azken aldi honetan, ez geunden beste batzuetan bezain ondo. Eta festa hau izan zitekeen adiskidetzeko aukera egokia, horregatik, dena ondo ateratzea nahi nuen. Nire amaren armairuan begiratzen ari nintzela, soineko hobeina aurkitu nuen. Horrela jantzita, ziur nengoen denak aho zabalik geldituko zirela. Deigarria zen, arrosa koloreduna, goitik irekia eta motz samarra, pelikuletan agertzen diren horietakoak bezala. Apaintzen ari nintzela, Miren, nire lagun minak, deitu zidan:

- Kaixo, Alaitz, larrituta nago, nire mutil lagunak ez dit mugikorra hartzen, beharbada arazoren bat izan du- arrapostu zidan.
- Lasaitu zaitez, Miren, seguraski Xabier oso lanpetuta dabil festa dela eta.
- Arrazoia duzu, egia esan, lan handia egin behar du, eskolako lagun guztiak joango gara eta. Eta zuk hitz egin al duzu zure mutil lagunarekin?- Itaundu zidan.
- Endikarekin? ba... ez asko. Oraindik ez dugu gure arazoa konpondu, baina espero dut gaurko festan gure harremana gehiago ez hondatzea.
- Egon zaitez lasai, saga eta katuaren antzera zabilzate eta azkenean beti bakeak egiten dituzue.
- Espero dut oraingoan ere horrela izatea. Tira, prestatzen bukatu behar dut, orain ikusiko dugu elkar- agurtu nuen.
- Baita nik ere, festa 30 minututan hasiko da eta.

Oinez joatea erabaki nuen. Lekua, aproposa zen festa bat egiteko. Urrun zegoen etxe bakarti batean zen, kanpotik nahiko zikina. Etxea ez zen Xabierrena, ez zuen etxejaberik, beraz, ziur geunden inork ez gintuela harrapatuko.

Atera hurbildu nintzenez, norbaitek deitu zidan atzetik. Endika zen:

- Alaitz! Zer moduz?
- Oso ondo. Ikusi al duzu Xabier?- galdetu nion.

- Ez, oraindik ez, hiru egun daramat berarekin hitz egin gabe. Zergatik?

- Ez duelako mugikorra hartzen.

- Ikusten badut esango diot- esan zidan Endikak.

- Ongi da. Esaiozu Miren bere bila dabilela.

- Ados. Axola al zaizu beranduago hitz egiten badugu gure artekoa konpontzeko?- galdetu zidan.

- Ondo iruditzen zait.

- Ederki!- Musu batez agur esan genion elkarri.

Momentu hartan oso arraro sentitu nintzen. Alde batetik, haserre nengoen berak emandako musuaren ondoren, baina bestetik, pozik sentitzen nintzen dena ezin baino hobeto zihoalako. Beti bezala, bere musu goxoak nire bihotzaren taupadak bizkortzen zituen.

Barrura sartu nintzenerako, bazeuden mozkor batzuk. Barrutik beste etxe bat zirudien, koadroz betea eta erdian eskailera ikaragarri bat zegoen bigarren solairura eramaten zuena. Ikastolako jende mordoak ikusi nuen, denak diskotekako bola baten azpian dantzatzen. Koloretako argi asko zeuden alde guztietatik. Zoragarria zen, benetako diskoteka bat ematen zuen.

Lagunekin hizketan nengoela Miren agertu zen. Beti bezala berandu zetorren. Berriro ere, ea Xabier ikusi nuen galdetu zidan. Nik ezeztatu egin nion. Handik gutxira, Endika ikusi nuen eskaileratan gora joaten. Gora iristean buelta eman eta keinu baten bidez berarengana joateko esan zidan. Goiko solairuan, ez zegoen inor, beraz. Endika eta biok berba egiteko leku aproposa zela uste genuen:

- Bistan dago guk biok zerbait argitu behar dugula, eta egia esan ez dut liskarrean aritzeko gogorik- esan nion Endikari.

- Nik ere ez, laztana. Zergatik ez dugu dena alde batera uzten eta lehen bezala jarraitzen?- erantzun zidan berak gerritik helduz.

- Niri primeran iruditzen zait, gainera, airea behar dudana bezala behar zaitut, maitea- esan zidan.

- A zer nolako gauzak esaten dizkidazun! Ezinezkoa da zurekin haserre egotea.

- Zatoz nirekin- esan zidan Endikak eskutik hartzen zidan bitartean.
- Nora goaz?

Erantzunik gabe, korridore batean zehar joan ginen, gela batera sartu ginen arte. Endikak irribarre egin zidan eta bere alkandorako botoiak askatzen hasi zen. Jarraian, nire lepoa musukatzen hasi zen atzeko kremlera askatzen zidan bitartean. Ohe gainean etzan ginen. Ez zen gure lehenengo aldia sexu-harremanak izaten genituen. Dena oso ondo zihoan, zerbait arraroa ikusi nuen arte. Garrasi egin nuen eta jauzi batez ohetik zutundu nintzen. Beso bat zen kolore zurbilarekin. Endikak ohe azpian nor zegoen begiratu zuen. Ondoren, harritu aurpegiarekin begiratu zidan. Bion artean atera genuen. Arnasa hartzen ez zuela zirudien. Aho zabalik gelditu ginen. Xabier zen, ezin genuen sinetsi hilda zegoela, ez zen harritzekoa azken egun hauetan inork berari buruz ezer ez jakitea.

2. Lur jota

Xabier ikusi genuenean, ez genekien zer egin, oso izututa geunden eta. Jantzi bezain laster, festan zeuden guztiei gertatutakoaz jakinarazi genien, eta poliziarri deitzea erabaki genuen. Denek tximistak bezain azkar alde egin zuten festatik. Poliziarri, ez zitzaion erraza egin etxea aurkitzea, eta bitartean, Mirenen negarrak entzuten genituen, benetan atsekabetuta baitzegoen. Polizia, bi ordu ondoren ailegatu zen eta gertatutakoa kontatu bezain laster, eskaileretatik igo eta logelan sartu ziren. Endika, Miren eta hirurok behean itxaroten geundenean, polizia ikusi genuen gorpuarekin eskailerak jaisten.

Polizia joan zenean, festa guztiz amaitutzat eman genuen eta Miren etxera eramatea erabaki genuen. Bere etxean utzi ondoren, Endikak nire etxera joaten lagundu zidan. Ibilbidean ia ez genuen hitzik ere esan, biok lur jota geunden eta.

- Denak txundituta utzi gaitu gertakizun honek - esan zidan Endikak isiltasuna mozteko.

- Bai, ni gure arteko arazoak konpontzera etorri naiz, baina dena pikutara joan da- Besoa ikusi nuen momentua etorri zitzaidan burura.

Endiak izututa ikusi eta besarkada bat eman zidan lasaitzeko asmoz. Handik gutxira etxera ailegatu ginen.

- Mila esker etxera etortzen laguntzeagatik Endika- esan nion agurtzeko.

Berak, besarkada bat eta muxu gozo horietako bat eman zidan. Nahiz eta momentu horiek asko gustatu, oraingo honetan, ez nuen ezer sentitu. Goibelegi nengoen.

Ohean sartu nintzen lo egiteko asmoz baina ezin nuen, galdera gehiegi nituen buruan, nork egin ote zuen hori galdetzen nion neure buruari eta zergatik Xabierri eta ez beste bati. Bere buruaz beste egin zuela ere pentsatu nuen, baina ez nuen erantzunik aurkitzen hain arraroa zen gertakizun honi. Gainera, begiak isten nituen bakoitzean, Xabierren eskua etortzen zitzaidan burura, beraz, lo egin beharrean, hilketei buruz informazioa bilatzea eta irakurtzea erabaki nuen.

Hurrengo goizean, goiz esnatu eta gurasoei kontatu nien gertatutako guztia. Txundituta utzi nituen esandakoarekin. Gosaldu ondoren, Endikari deitu nion.

- Kaixo, Endika!

- Egunon, polit - erantzun zidan- Zer moduz egin duzu lo?

- Ezin izan dut lorik egin. Ez dut sinisten gertatutakoa oraindik ere argitu nion.

- Goizean poliziarengana joatea pentsatu dut.

- Poliziarengana? Zertara?- moztu nion.

- Ba ea gorpuan hiltzailearen hatz-markak aurkitu dituzten ala ez jakitera.

- Ondo da, zurekin joango naiz. Hamaika eta erdietan geratuko gara herriko plazan elkarrekin joateko.

- Primeran! Gero arte- esan zidan.

- Agur, Endika.

Etzetik oinez irten nintzen, hamaika eta erdietan herriko plazan egoteko asmoz. Endika ailegatu bezain pronto, polizia-etxe aldera abiatu ginen. Iritsi ginenean, polizia bat ikusi genuen, eta berari galdetu genion ea bart gauekoari buruz zerbait zekien ala ez. Polizia hori, etxera gorpua bilatzera etorri zena izan zen, eta berehala gela batean sartzeko esan zigun.

Segidan, beste polizia bat etorri zen liburuxka bat estu artean zuena. Orain dela hiru egun gertatu zen hilketarekin antzekotasun gehiegi zituela argitu zigun. Txundituta utzi gintuen. Zauri berdinak leku berdinean zituzten gorputzean, gainera, biek autopsia egin ondoren, gauza bera kontsumitu zutela esan zigun, baina ez zekitela zer zen. Oraindik ez zuten hiltzailea aurkitu, horregatik, hiltzaile berbera zela pentsatzen zuten. Orain poliziaren txanda zen hiltzailea aurkitzea beste norbait hil baino lehen.

3. Gezurretan

Gauzak zehaztu ondoren, Xabierren bizitzari buruzko galdeketarekin hasi ziren, festan izan ziren guztien zerrenda bat zuten, eta banan-banan festako gonbidatu guztiei itaunketa egiteko asmoa zuten. Nahiz eta poliziek Xabierren neska lagunarekin, hau da, Mirenekin, hitz egiteko gogo handiak izan, lehenengoak Endika eta ni izan ginen, bera oraindik ere oso minduta baitzegoen gaiari buruz solasteko.

Biei batera egingo zizkiguten galderak eta gela batera eraman gintuzten. Une hartan, telebistan ikusten nituen polizia telesailak etorri zitzaizkidan burura eta urduri jarri nintzen. Endikak begiratu egin zidan eta bere irribarreari esker lasaitu egin nintzen. Galdera mordoa egin ondoren, mugikorrak hartu zizkiguten aztarnaren bat bilatzeko asmoz. Endika dezente haserretu zen. Hasiera batean, uko egin zuen, baina poliziak behin eta berriro iharduki ondoren, mugikorra eman zion. Poliziarekin hizketan geundela, Endikari ea noiz ikusi zuen azkeneko aldiz Xabier galdetu zioten:



- Duela aste pare bat ez dugu elkarren berri, oso lanpetuta zebilen festarekin eta duela gutxi etxez aldatu dute, gainera, familian diru arazoak zituztenez, lan bila zebilen- erantzun zuen.
- Benetan? Agian horregatik izango da bere helbidea aurkitzen ez dugula. Esango al zenidake non bizi zen?
- Urbieta kalean, 14. atarian.
- Ongi da, bere etxera joango gara bere gurasoei galdera pare bat egitera. Lasai egon, jakinaren gainean egongo zarete. Mugikorrak bihar bueltatuko dizkizuegu.
- Eskerrik asko.

Poliziak bere etxera iristean, gurasoak goibelduta ikusi zituzten. Hitz egiteko gogorik ez zutenez, Xabierren logela arakatzea erabaki zuten. Argi zegoen nerabe baten logela zela, dena hankaz gora. Mahaia orriz betea, eta lurra arropaz josia, ia ezinezkoa zen handik ibiltzea. Horman bere familiaren argazki bat zintzilikatuta zuen eta ondoan moda-modako musika talde baten horma-irudi egundokoa.

Gau-mahai gainean plater zikin bat zegoen tomate arrastoak zituena, baita freskagarri erdi bukatua ere. Ohe desegin gainean beste hainbat orri eta liburu zeuden. Ikertzen ari zen pertsona bati liburu bat oso deigarria iruditu zitzaion. Psikologiari buruzkoa zen, gazteek irakurtzen ez zituzten horietakoak. Besteen izenburuak ikustean, eta alboan zeuden paperak irakurtzean, Xabierrek arazoren bat zuela ondorioztatu zuen.

Ohe azpian plastiko zati bat ikusi zuen, horregatik, ohea altxatzea bururatu zitzaion. Kaxa bat zuen gordeta. Haren barnealdean poltsa bitxi batzuk zeuden eta, horrez gain, baita droga-saltzaileek erabiltzen zituzten tresna batzuk ere. Logelatik ateratzear zeudenean, norbaitek zerbait zapaldu zuen eta makurtu egin zen zer zen ikusteko. Mugikor bat, zoritxarrez, itzalita. Xabierrena zela ondorioztatu zutenez, poltsatxo batean sartu zuten geroxeago ikertzeko. Jarraian, polizia-etxera bueltatzea erabaki zuten.

Gaueko hamaikak eta hogeita zazpi minutu ziren, bat-batean, norbaitek hots egin zuen. Informatikaria zen, eta Endika eta Alaitzen mugikorrek aztertzeaz bukatu zuela argitu zuen. Endikaren mugikorrean Xabierrekin zituen elkarrizketak zeuden, batzuk Xabier hil zen egun berekoak eta beste batzuk zaharragoak. Hori entzun ondoren, poliziak Endikak esan zuena gogoratu zuen “Duela aste pare bat ez dugu elkarren berri”. Arraroa iruditu zitzaion. Arrazoi ezezagun batengatik Endikak gezurra esan zuen. Poliziak elkarrizketa posta elektronikoz bidaltzeko eskatu zion informatikariari.



Polizia, txunditurik geratu zen hori dena irakurri ondoren, bigarren elkarrizketa hil baino ordu batzuk lehenago izan zen. Hurrengo egunean Endikarenera joatea erabaki zuen.

4. Laguntzaile berria

Hurrengo eguna iritsi zen eta Endikaren ama bere logelara sartu zen hura esnatzeko. Polizia bat behean bere zain zegoela esan zion eta berehala altxa zen ohetik, lehenengo solairura jaisteko. Endikaren gurasoek diru asko zuten eta baita lan bikainak ere. Horregatik, etxe handi eta eder batean bizi ziren. Urtero joaten ziren oporretan leku harrigarrietara eta ia egunero arropa berria janzten zutela esan genezake. Arreba gazteago bat zuen 7 urte zituena. Udako goizetan, etxeko igerilekuan bainatzen zen eguna ondo hasteko. Ondo bizitza asko gustatzen zitzaion familia zuen.

Etxeko sarrerara joan zen eta han lehenengo eguneko polizia ikusi zuen. Elkarrekin, egongelara joan ziren lasai berba egiteko. Poliziak, Endika urduri samar zegoela nabaritu zuen. Endikaren ahulezietako bat, urduri zegoenean izerdi patsetan jartzen zela zen, eta momentu hartan buruan urez betetako ontzi bat bota izan baliote bezala zirudien. Poliziak isilunea hausteko mugikorra ekarri zuela esan zion. Jarraian galderak egiten hasi zen:

- Xabierri buruz hitz egitera nator. Noiz izan zen ikusi zenuen azkeneko aldia?
- Ba...- pentsakor zegoen, ez zekien zer erantzun- duela bost egun esango nuke.
- Seguru zaude? Eta, noiz hitz egin zenuten azkeneko aldiz?
- Orain dela lau egun- esan zuen mutilak.
- Benetan? Festa baino lehen ez zenutela hitz egin esan nahi duzu?
- Bai- ihardetsi zuen Endikak, isilune luze baten ondoren.
- Zure mugikorrean festaren eguneko elkarrizketa bat aurkitu dugu. Haserreturik zeundetela zirudien. Nola azalduko zenuke hori?- iharduki zuen gizonak.
- Arrazoi duzu, ez nintzen oroitzen. Festa baino lehen hitz egin genuen, bai, baina ez du garrantzirik.
- Dakidanaren arabera, festara lehenago joan zinen, orduan, zu izan zinen bera bizirik ikusi zenuen azkeneko pertsona.

Une hartan, Endika oraindik urduriago jarri zen. Bere aurpegia gorri kolorea hartzen ari zen eta izerdi tantak erortzen zitzaizkion kopetatik.

- Berarekin egon ondoren etxera bueltatu nintzen. Handik alde egin nuenean, bizirik jarraitzen zuen.
- Ongi da- erantzun zuen poliziak bere liburuxkan dena idazten zuen bitartean- azkeneko galdera bat egingo dizut, eta oraingoan egia esatea nahi dut, mutiko. Galdeketan esan zenuen Xabier lan bila zebilela. Zer motatako lanetan zebilen?
- Egia esan, ez dakit- Endikak.
- Eta zer esan zenezake bere logelan aurkitu ditugun tresna bitxi batzuei buruz?
- Zer motatako tresnak?- galdetu zion Endikak harriturik eta hitz totelka.
- Trafikariek erabiltzen dituzten horietakoak- zehaztu zuen poliziak.
- Nik ez dakit ezer horri buruz.

Endikak, ondoan zuen pertsonari begiratzea saihestu nahi zuen. Poliziak bazekien Endikak zerbait zekiela gertatutakoari buruz baina oso zaila egingo zitzaion zer zen jakitea, beraz, polizia-etxera joan zen itaunketak egiten jarraitzera.

Hiru egun pasa ziren eta poliziek ez zuten ezer berririk aurkitu. Informatikariak, Xabierren mugikorra aztertzen bukatu behar zuen. Egun hartan, Alaitz polizia-etxera hurbildu zen pistaren bat zuten galdezka. Haiek ezeztatu ondoren, galdeketa berri bat egin behar ziotela esan zioten. Berriro ere, gela hartara eraman zuten baina oraingo honetan bakarrik zegoen, eta galdeketa Endikari buruz zen.

- Esango al zenidake nolakoa zen Endika eta Xabierren arteko harremana?
- Lagun minak ziren txikiak zirenetik. Aste buruak beti elkarrekin pasatzen zituzten eta seguru nago konfiantza handia zutela elkarrengan.
- Baita azken egun hauetan ere?

- Tira... Xabier arraro xamar zebilen, ez zuen inorekin hitz egin, ezta Endikarekin ere. Hasieran haserre zeudela pentsatu nuen baina Endikari galdetu ondoren, berak ezetz esan zidan.
- Eta nola dakizu ez zizula gezurrik esan?- jakin nahi zuen poliziak.
- Ba... ez dut uste gezurra esan zidanik- erantzun zuen zalantza aurpegiaz.
- Alaitz, badakit bera zure mutil laguna dela baina lehengoan, aste batzuk Xabierrekin hitz egin gabe zeramala esan zuen eta bere mugikorrean festaren egun bereko elkarrizketa bat aurkitu duguz azaldu zion.
- Benetan!? Niri ere antzeko zerbait esan zidan festan elkar ikusi genuenean.
- Lagunduko al zeniguke buruhauste hau konpontzen?
- Ez dakit ba...
- Egon zaitetz lasai, esku honetan zaude, ez du jakingo zu guri laguntzen zabiltzala.
- Ongi da- Erantzun zuen Alaitzek ondo pentsatu eta gero.

5. Lagun “minak”

Azken egun hauetan, Alaitzek ezinbesteko informazioa lortu zuen Endika eta Xabierri buruz. Poliziek, Endikaren mugikorrean eta Xabierren etxean aurkitu zuten aztarnen arabera, Xabier eta Endika drogen arazoetan nahasita zeudela ondorioztatu zuten. Alaitzek, nola egin zuen jakin gabe, susmo horiek egiaztatzea lortu zuen. Hori dela eta, Poliziak trafikariek harremanetan jarri ziren eta galdetegi bat egin zieten, baina dirudienez, trafikariak ez ziren festan izan, koartada paregabea zuten; beraz, ez zuten zerikusirik Xabierren hilketarekin. Poliziek ez zuten kasua alde batera utzi, alderantziz baizik, arrastoak bilatzen jarraitu zuten eta Alaitzek, hiltzailea nor zen adierazten zuen froga bikaina aurkitu zuen. Zein ote zen aztarna hori? Ikerketa osoan gehien kostatu zitzaiena zen.

Bere mutil lagunak dena kontatu zion Alaitzek Endikaren gelan drogaz betetako kaxa bat aurkitu ondoren. Alaitzi asko kostatu zitzaion

Endikak egin zuena azaltzea, baina berak esan zuen bezala, Xabierren onerako egin zuen.

Alaitz polizia-etxean zegoen poliziaren zain. Ailegatutakoan, bere aurpegia malkoz beteta zegoen jada eta poliziak ezer esan gabe, hizketan hasi zen zoratua egongo balitz bezala. |

- Dena mutiko bati droga saltzera joan zirenean hasi zen...

Egun iluna zen, eta trumoi ikaragarriak entzuten ziren. Eroslea herriko plazan itxaroten ari zitzaien gau hartako hamabiak aldera. Ordu batzuk lehenago bi droga oso mingarri nahastea bururatu zitzaion Endikari nahiz eta Xabierrek ideia tamalgarria zela pentsatu. Drogak itxura normala zuenez erosleari hori eman zioten eta hurrengo egunean, gizon hura bere etxean hilda agertu zela entzun zuten. Notiziak zioenaren arabera, kontsumitutako zerbaitengatik izan zen. Momentu hartan, Endika eta Xabier errudun sentitu ziren, batez ere Xabier. Inori ez kontatzea erabaki zuten. Beraien bien arteko elkarrizketan esan zuten bezala. Hortik aurrera, Xabier oso urrun ibiltzen zen bere lagunengandik. Festa bat antolatzea pentsatu zuen gertatutakoa ahazteko, baina ezinezkoa egin zitzaion. Ondorioz, poliziari deitzea eta gertatutakoa kontatzea ideia ona iruditu zitzaion baina lehenago Endikarekin hitz egin behar zuen. Endikari egingo zuena kontatutakoan, haserre bizardu zen. Berak bazekien bizitza hondatuko zitzaiola.

Endikak Xabier lepotik heldu zuen ainerik gabe utzi arte eta konortea galdu ondoren, beste pertsonari emandako droga pozoitsua eman zion. Horrela, beste gizonak kontsumitu zuen droga berarengatik hil zela pentsatuko zuten.

Epaiaketa baten ostean, adingabeentzako zentrora eramane zuten Endika, eta bertan 12 urte luze igaro beharko zituen; Alaitz 2 astez egon zen etxean ikastolara joan gabe.

12 urte pasatu ondoren, Endika zentrotik atera zen eta Alaitzi mezu bat bidali zion. Mezuak zioenez, Endikak bere buruaz beste egingo zuen gaueko hamabietan, oraindik ere errudun sentitzen zelako.

Alaitzek ezer esan gabe, etxetik atera zen ziztu bizian. Mezuak ez zuen esaten non egongo zen, baina Alaitzek bazekien, festako etxe zikin horretan, Xabier hil zuen lekuan, egongo zela. Iritsitakoan, Endika etxeko sarreran ikusi zuen, Xabierrek zituen zauri berdinekin eta ohartxo bat ondoan, esaten zuena: “BERANDU ZATOZ”